



Natura Zientziak

Lehen Hezkuntzako 4. mailarako Natura Zientziak liburua Zubia Editoriala, S. L. ren eta Santillana Educación, S. L. ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruiz** en zuzendaritzapean sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

TESTUA

María del Valle Alcover de la Hera

Pilar de Luis Villota

Susana Lobo Fernández

Daniel Masciarelli García

Juan Ignacio Medina Crespo

Cristina Zarzuelo Puch

IRUDIAK

Alademosca il-lustració

Digitalartis

José Luis Navarro

Marcelo Pérez

José Santos

EDIZIOA

Begoña Barroso Nombela

Pilar de Luis Villota

Daniel Masciarelli García

Juan Ignacio Medina Crespo

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Antonio Brandi Fernández

LEHEN HEZKUNTZAKO ZUZENDARITZA

ETA EDIZIO-KOORDINAZIOA

Maite López-Sáez Rodríguez-Piñero

Liburu honetako ariketak ezin dira inola ere liburuan bertan egin.
Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskema eta gainerako
baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

Unitatea	Hasierako irakurgaia	Jakin	
1 Bizi-funtzioak 6	Gurpilak eta piramideak	■ Nutrizio-funtzioa ■ Harreman-funtzioa ■ Ugalketa-funtzioa	
2 Gure zentzumenak 18	Keinu-hizkuntza	■ Ikusmena eta entzumena ■ Ukimena, usaimena eta dastamena ■ Zentzumen-organoak zaintzea	
3 Gure osasuna zaintzen 30	Gatazka konpondu da!	■ Osasuna ■ Ohitura osasungarriak ■ Elikadura osasungarria ■ Istripuen prebentzioa	
BAIETZ ONDO EGIN! eta NIRE PROIEKTUA. Lehen hiruhilekoa			
4 Izaki bizidunen sailkapena 48	Bizia nonahi	■ Izaki bizidunen taldeak ■ Animaliak, landareak eta algak ■ Onddoak eta bakterioak	
5 Landareak 60	Ez nazazu jan!	■ Landareen atalak ■ Landareen nutrizioa ■ Landareen ugalketa ■ Landare taldeak	
6 Landare basatiak eta landatuak 74	Nola izan tomateak urte guztian	■ Nola bizitzen dira landareak? ■ Landaredia ■ Nekazaritza ■ Laborantza motak	
BAIETZ ONDO EGIN! eta NIRE PROIEKTUA. Bigarren hiruhilekoa			
7 Indarrak eta energia 92	Protesi ia magikoak	■ Indarrak ■ Energia-iturriak ■ Energia eta haren erabilera	
8 Beroa eta argia 104	Kontzertu ikusgarria	■ Beroa ■ Argia ■ Argia eta koloreak	
9 Makinak 116	Eraikuntza erraldoiak	■ Makina sinpleak ■ Makina konposatuak ■ Eragile mekanikoak	
BAIETZ ONDO EGIN! eta NIRE PROIEKTUA. Hirugarren hiruhilekoa			

Ba ote dakizu?	Egiten jakin
	Dieta osasungarriak bereiztea
Elikagaien zaporea	Kodeak interpretatzea eta erabiltzea
Kirol batean ondo aritzeko aholkuak	Gatazka-bitartekotza
Izaki bizidunen azterketa Jogurta egitea etxean	Animalien atalak eta hondakinak sailkatzea
	Lupa batez behatzea eta lore bat marraztea
Landareak aldatu egiten dira Ugalketa asexuala nekazaritzan	Landare bat aukeratzea eta zaintzea
	Indarren eragina bereiztea
	Argiaren oinarritzko koloreak bereiztea
Zirkuitu elektrikoak eta elektronikoak Mekanismo baten azterketa	Katapulta bat egitea

Oinarritzko gaitasunak

Liburuan zehar, **HEZIBERRI**ren araberrako oinarritzko gaitasunen ikurrak ikusiko dituzu zenbait jardueraren ondoan. Ikur horiek kasu bakoitzean zer gaitasun lantzen den adierazten digute.

Oinarritzko gaitasunak

-  Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna
-  Matematikarako gaitasuna
-  Zientziarako gaitasuna
-  Teknologiarako gaitasuna
-  Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
-  Arterako gaitasuna
-  Mugimendurako gaitasuna

Zehar-gaitasunak

-  Hitzez, hitzik gabe eta era digitalean komunikatzeko gaitasuna
-  Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
-  Elkarbizitzarako gaitasuna
-  Ekimenerako eta ekintzaile-sena garatzeko gaitasuna
-  Izaten ikasteko gaitasuna

Nire proiektua

Ongi etorri Lehen Hezkuntzako 4. mailara. Ikasturte honetan Natura Zientzietako proiektu bat egin behar duzu.

Hasi aurretik, hauek jakin behar dituzu:

Zer dira proiektuak?

Gai bati buruzko jarduera multzoa da. Jarduera horiek informazioa lortzeko, antolatzeko eta ikasgelan aurkezteko balio dute.

Nola egiten dira proiektuak?

Proiektuak egiteko, urrats hauek eman behar dira:

- Informazioa biltzea. Horretarako, behaketak egin ditzakezu, gaiari buruz dakitenei galdetu, edo liburuetan, Interneten eta abarren kontsultak egin.
- Testu bat idaztea bildutako informazioarekin. Testuan, irudiak erabil ditzakezu; adibidez, argazkiak edo zuk zeuk egindako marrazkiak.
- Ikasgelan azaltzea proiektuaren gaiari buruz ikasi duzun guztia.

Norekin egingo duzu proiektua?

Egingo duzun proiektua kooperatiboa da. **Proiektu kooperatibo** deritzo, lana lau ikaskiderekin egingo duzulako. Zuetako bakoitza lanaren zati batez arduratuko da.

Irakasleak esango dizue zer jarduera egin behar diren proiektua egiteko, eta zein den jarduera horiek denon artean banatzeko modurik onena.



Nekazaritzaren azterketa: olioa

Nekazaritzari esker, gure elikaduran erabiltzen ditugun produktu ugari lortzen ditugu. Zuen proiektuan, hain zuzen, nekazaritza-produktu ezagunenetako bat aztertuko duzue: oliba-olioa.

Hiruhileko bakoitzean, proiektuaren atal bati buruz ikertuko duzue, hura lantzeko.

→ LEHEN HIRUHILEKOA

Lehen hiruhilekoan hauek ikasiko dituzue: gure gorputzak nola funtzionatzen duen eta zer ohitura diren lagungarriak gure osasuna zaintzeko.

Proiekturako, oliba-olioari buruzko informazioa bilatu beharko duzue, bai eta osasunari dakartzkion onurei buruzko informazioa ere.

Horrez gain, testu-prozesadorea erabiliko duzue azala egiteko eta informazioa idazteko.



→ BIGARREN HIRUHILEKOA

Hiruhileko honetan, gauza asko ikasiko dituzue izaki bizidunei buruz, oro har, eta landareei eta haien laborantzari buruz, bereziki.

Olibondoari buruz ikertuko duzue, jakiteko zer motatako landare den, nola lantzen den eta zer nekazaritza-lan behar dituen.

Horrez gain, testu-prozesadorean testuak eta irudiak uztartzen ikasiko duzue.



→ HIRUGARREN HIRUHILEKOA

Besteak beste, makinen eta haien funtzionamenduaren berri ikasiko duzue.

Proiekturako, olio olibetatik abiatuta egiteko prozesuari buruzko informazioa bilatuko duzue.

Amaitzeko, prozesuaren eskema egingo duzue, eskuz edo testu-prozesadorea erabiliz.



Gurpilak eta piramideak

Munduan, zientzialari asko ari dira elikadurari buruz ikertzen, eta saiakuntzak egiten dituzte, jakiteko zein diren elikagai osasungarrienak.

Ikerketa horien berri emateko, artikuluak idazten dituzte zientzia-aldizkarietan. Baina artikulu horiek ulertzea zaila izaten da. Izan ere, *polisakarido konplexu*, *gantz-azido poliasegabe* eta antzeko hitzak erabiltzen dituzte. Horrela ez dago ulertzerik.

Zorionez, adituek gauzak errazten dizkigute eta erraz ulertzeko moduan adierazten dute informazioa. Adibidez, elikadurari buruz dakigun gauzetako asko laburbiltzen dute gurpil- edo piramide-itxurako grafikoak erabiliz. Marrazki horietan, guretzat egokienak diren elikagaiek leku handiagoa hartzen dute.

Tresna horiei esker, oso erraza da ondo elikatzea.



Irakurri eta ulertu problema

- Non idazten dituzte artikuluak ikertzaileek?
- Zergatik da zaila zientzia-artikuluak irakurtzea?
- Zer dira elikadura-gurpilak eta -piramideak?
- Zure ustez, elikagai batzuk osasungarriagoak al dira beste batzuk baino?
- Non ari da gertatzen marrazkian adierazten den eszena? Azaldu zergatik dakizun hori.



- **AHOZ ADIERAZI.** Azaldu ikasleei zein den zure janari gogokoena.

EGITEN JAKIN



AMAIERAKO ATAZA

Dieta osasungarriak bereiztea

Unitatea amaitzean, dieta osasungarriak bereizteko gai izango zara.

Aurretik, bizi-funtzioak zein diren eta pertsonok nola egiten ditugun ikasiko duzu, eta funtzio horietan parte hartzen duten organo, aparatu eta sistemak ezagutuko dituzu.



ZER DAKIZU HONETAZ?



Bizi-funtzioak

- Bizi-funtzioak bizirik irauteko egin behar diren funtzioak dira. Izaki bizidun guztiek egiten dituzte.
- Mantenugaiak elikagaiek dituzten substantzia baliagarriak dira.

- 1 Zein dira bizi-funtzioak?
- 2 Zein dira mantenugaiak?
- 3 Zer mantenugai lortzen dira eskuineko argazkiko elikagaietatik?



Nutrizio-funtzioak

Zenbait pertsonak pentsatzen dute nutrizioa eta elikadura gauza bera direla, baina ez da hala. Nutrizioa elikadura baino askoz gehiago da. Elikadura egunean zenbait aldiz egiten den zerbait da, baina nutrizioa, berriz, etengabe ari da gertatzen gure gorputzean.

Zer da nutrizioa?

Nutrizio-funtzioa arduratzen da bizirik egoteko behar ditugun energia eta material guztiak emateaz.

- **Energia** beharrezkoa da jarduera guztiak egin ahal izateko: ibili, lasterka egin, pentsatu, etab.
- **Materialak** beharrezkoak dira hazteko eta gastatzen eta hondatzen diren materialak berritzeko. Halaber, beharrezkoak dira gorputzak behar bezala funtzionatzeko.

Energia eta materialak elikagaiek dituzten **mantenugaie**-tatik lortzen dira. ¹

Nutrizio-prozesuak

Nutrizioa elikagaiak hartzean hasten da. Horren ondoren, zenbait prozesu gertatzen dira gure gorputzean, gu ohartu gabe:

- **Digestioa.** Elikagaiek dituzten mantenugaiak lortzeko balio du.
- **Arnasketa.** Aireko oxigenoa gorputzean sartzeko balio du. Oxigeno hori beharrezkoa da elikagaietatik energia lortzeko.
- **Zirkulazioa.** Oxigenoa eta elikagaietako substantzia erabilgarriak gorputz osoan banatzean eta aldi berean hondakinak jasotzean datza.
- **Iraizketa.** Nutrizio-funtzioan gure gorputzaren barruan sortzen diren hondakin-substantziak kanporatzea da.

Nutrizioa materialak eta energia lortzea da. Digestioa, arnasketa, zirkulazioa eta iraizketa hartzen ditu barnean.




¹ Elikadura nutrizioaren lehen urratsa da. Elikadura ona osasungarria da, eta behar ditugun energia eta material guztiak ematen dizkigu.

Nutrizio-aparatuak

Nutrizio-prozesuak gorputzaren barruko zenbait organotan gertatzen dira. Organo horiek multzokatu egiten dira eta **aparatuak** eratzen dituzte.


Digestio-aparatua.

Digestioaz arduratzen da. Zati handiena sabelaldean dago.




Arnas aparatua.

Arnasketa egiten du. Zati handiena bularraldean dago.




Zirkulazio-aparatua.

Zirkulazioaz arduratzen da. Gorputz osoan banatuta dago.



Iraitz-aparatua.

Iraizketa egiten du. Sabelaldean dago.



Nutrizioan, digestio-, arnas, iraitz- eta zirkulazio-aparatuek hartzen dute parte.

JARDUERAK

- 1 Azaldu zer lortzen dugun nutritzio-funtzioari esker.
- 2 Gauza bera al dira elikadura eta nutritzioa? Azaldu erantzuna.
- 3 Idatzi nutritzioan esku hartzen duten prozesuak, eta azaldu zer aparatuk egiten dituzten prozesu horiek.



Harreman-funtzioa


Gure bizitza ingurunetik jasotzen dugun informazioaren araberakoa da, bai eta informazio horri ematen dizkiogun erantzunen araberakoa ere.

Zer da harreman-funtzioa

Hau da harreman-funtzioa: gure inguruan gertatzen dena hautematea, informazio horri zer erantzun eman erabakitzea eta erabakitako hori gauzatzea. ¹

Hori etengabe gertatzen da, eta sarritan, gu ohartu gabe. Adibidez, kalean ibiltzean, bideko oztopo guztiak ikusten ditugu, eta automatikoki saihesten ditugu, horretarako arreta handirik jarri gabe.

Harreman-funtzioan zenbait elementuk hartzen dute parte: **zentzumen-organoek**, **nerbio-sistemak** eta **lokomozio-aparatuak**.



Nerbio-sistema


Nerbio-sisteman bi osagai nagusi bereizten dira: ²

- Organoak; esaterako, **garuna**. Zentzumen-organoetatik informazioa jaso eta interpretatu egiten dute. Horren ondoren, zer erantzun eman behar den erabakitzen dute. Azkenik, erantzun horretarako behar diren aginduak bidaltzen dituzte.
- **Nerbioak**. Gorputz osoan daude banatuta eta bi funtzio dituzte:
 - Zentzumen-organoek jasotako **informazioa** garunera eramaten dute.
 - **Aginduak** eramaten dituzte garunetik lokomozio-aparatura.

Harreman-funtzioa gure inguruneko informazioa hautematea eta informazio horren arabera modu egokian erantzutea da.



- ¹ Ping-pongeko jokalaria pilotari nola datorren ikusi du, haren ibilbidea kalkulatu du eta gai izan da dagokion unean pilotari emateko.



- ² Nerbio-sistemaren organo nagusiak.

Lokomozio-aparatua


Lokomozio-aparatuari esker mugi gaitzke. Eskeleto-sistemak eta gihar-sistemak osatzen dute aparatu hori. ³

- **Eskeleto-sistema** gorputzeko **hezur** guztien multzoa da. Hezurak **giltzaduren** bidez elkartzen dira, eta horietako batzuei esker, hezurrek mugimenduak egin ditzakete.
- **Gihar-sistema** **giharrek** osatzen dute. Giharrek hezurretara lotuta daude, **zurden** bidez, eta hezurak mugitzen ditzuzte.


IRUDIAREKIN LANEA

- Zer hezur daude errotularen inguruan?
- Non daude gihar orbikularrak?

Eskeleto-sistema



Gihar-sistema



Lokomozio-aparatua eskeleto-sistemak eta gihar-sistemak osatzen dute. Mugimenduaz arduratzen da.

- ³ Lokomozio-aparatua. Eskeleto-sistemak eta gihar-sistemak osatzen dute.

JARDUERAK

- 1 Deskribatu harreman-funtzioa, adibide bat erabiliz.
- 2 Azaldu zer eginkizun duen hauetako bakoitzak harreman-funtzioan:
 - zentzumen-organoak
 - garuna
 - nerbioak
 - lokomozio-aparatua
- 3 Azaldu zer eginkizun duten artikulazioek eta zurdek lokomozio-aparatuan.

Ugalketa-funtzioa

Zer da ugalketa

Ugalketa-funtzioaren bidez, pertsonak ondorengoak izaten dituzte; hau da, seme-alabak.

Giza ugalketa **sexuala** da. Horrek esan nahi du sexu desberdineko bi pertsonak hartu behar dutela parte ugalketan; gizon batek eta emakume batek, alegia. Beraz, ondorengoek amaren eta aitaren antza izango dute, baina desberdinak izango dira haiekiko. ¹

Bestalde, gizakiok **bibiparo**ak gara; hau da, umeak amaren sabelean garatzen dira, jaiotzeko unea heltzen den arte.

Ugaltze-organoak

Ugalketa-funtzioan parte hartzen duten organoak **ugaltze-aparatu**an multzokatzen dira. Gizonen eta emakumeen ugaltze-aparatuak desberdinak dira; beraz, gizonaren ugaltze-aparatua eta emakumearen ugaltze-aparatua daude. ²

Ugaltze-aparatuak nerabezaroan lortzen dute erabateko garapena eta ugalketan parte hartzeko ahalmena.



- ¹ Neba-arreba bikiak berdinak dira itxuran eta beste alderdi askotan.


IRUDIAREKIN LANEAN

- Egin bi zutabeko koadro bat. Batean, idatzi gizonaren ugaltze-aparatuaren organo nagusiak, eta bestean, berriz, emakumearen ugaltze-aparatuak.



Ugalketa ondorengoak izatean datza. Ondorengo horiek gurasoen antza dute. Ugalketa gizonaren ugaltze-aparatuari eta emakumearen ugaltze-aparatuari esker gertatzen da.

- ² Gizonen eta emakumeen ugaltze-aparatuaren organo nagusiak.



Haurdunaldia

Bederatzi hilabetez, gutxi gorabehera, izaki berria amaren sabelean garatzen da. **Umetokian** egoten da. Ugaltze-aparatuko organo bat da umetokia, umea barruan eduki ahal izateko behar adina handitzen dena.

Denbora horretan, umeak amarengandik jasotzen ditu mantenugaiak eta oxigenoa. Hazten doa; haren forma aldatu egiten da eta organo guztiak garatu egiten dira, jaiotzeko eta amaren sabeletik kanpo bizitzeko moduan dagoen ume bihurtu arte. ³

Aldi horri guztiari **haurdunaldi** edo **ernaldi** esaten zaio.

Jaioberria

Jaioberriak gurasoen zainketak eta arreta behar ditu etengabe. Amak sortzen duen **esneaz** elikatzen da, edo umeentzako esne berezia hartzen du, biberoian. Ez da hitz egiteko edo ibiltzeko gai, ez du hortzik, eta gurasoen menpe dago den-denerako. Negar egiten baino ez daki, bere premiak adierazteko.

Hala ere, umea bizkor hazten da. Jaiotzetik urtebetera edo, jada badaki hitz erraz batzuk esaten, lehen urratsak ematen ditu eta hortzen bat atera zaio.

Gizaki berria bederatzi hilabetez garatzen da amaren umetokian. Jaiotzean, amaren esneaz elikatzen da, eta erabateko mendekotasuna du gurasoekiko.

³ Umearen ernaldia. Amaren sabelean dagoenean, haurra hazi eta garatu egiten da.

JARDUERAK

- 1 Azaldu termino hauen esanahia:**
 - ugalketa sexuala.
 - ugalketa bibiparoa.
- 2 Zergatik esaten da ugaltze-aparatuak, eta ez ugaltze-aparatua?**

Dieta osasungarriak bereiztea

Elikadura-gurpil eta -piramide asko daude. Horietako bat NAOS piramidea da. Elikagaien Segurtasunerako Espainiako Agentziak egin du, bizimodu osasungarria sustatzeko.

→ Aztertu piramidea

- 1 Piramidea zertxobait desitxuratuta dago, garraiobide baten itxura izateko.


Zein da garraiobide hori?

- 2 Piramidean ez daude elikagaiak soilik.

Zer gehiago dago piramidean?

- 3 Piramidean, hiru elikagai multzo daude: egunean zenbait aldiz jan behar direnak, astean zenbait aldiz jan behar direnak, eta noizean behin jan behar direnak.

Kopiatu eta osatu taula hau koadernoan, NAOS piramidea kontuan hartuta.




ELIKAGAIK		
Egunean zenbait aldiz	Astean zenbait aldiz	Noizean behin

→ Erabili piramidea

- 4 Marrazkietan, Imanolek eta Naiarak jan dutena ikus daiteke.

Bi menuetatik, zein da, zure ustez, osasungarriena? Zergatik?



★ **1 LABURPENEA.** Kopiatu koadernoan unitatearen laburpena, eta osatu, hitz hauek erabiliz.

nerbio – lokomozio – iraitz – materialak –
zentzumen – ugalketa – digestioa – mantenugaietatik –
arnas – zirkulazioa – informazioa – ugaltze

Nutrizio-funtzioa eta energia lortzea da, elikagaiek dituzten .

Nutrizioak zenbait prozesu hartzen ditu barnean:
digestio-aparatuan gertatzen da; arnasketa,
aparatuan; , zirkulazio-aparatuan; eta iraizketa,
berriz, -aparatuan.


Harreman-funtzioa gure inguruko hautematea da, eta informazio horri erantzutea. Hauek hartzen dute parte:
-organoek, -sistemak eta -aparatuak.

-funtzioa ondorengoak izatean datza. Ondorengoek gurasoen antza izaten dute.

Ugalketa-funtzioa -aparatuei esker gertatzen da.



2 ESKEMA. Kopiatu eta osatu koadernoan nutrizio-funtzioari buruzko eskema.



1 Erantzun galderei.

- Zergatik da beharrezkoa nutrizio-funtzioa?
- Zer lotura du nutrizioak mantenugaiekin?
- Gauza bera al dira nutrizioa eta elikadura? Azaldu zertan diren desberdinak.

2 Kopiatu eta osatu koadernoan nutrizio-prozesuei buruzko esaldi hauek:

-  -funtzioari esker, materialak eta energia lortzen ditugu elikagaietatik.
-  esker, elikagaiek dituzten substantzia baliagarriak lortzen ditugu.
-  airetik oxigenoa lortzea da.
-  nutrizioan sortzen diren hondakin-substantziak kanporatzea da.
-  bidez, oxigenoa eta elikagaien substantzia baliagarriak banatzen dira gorputzean, eta hondakin-substantziak kanporatzen dira.



3 Zein dira nerbio-sistemaren osagai nagusiak?

Azaldu nerbioen funtzio nagusiak eta zer lotura duten lokomozio-aparatuarekin.

4 Demagun familiarekin mendian paseatzen ari zarela.

Zer bizi-funtziok hartzen dute parte? Azaldu zergatik.

5 Osatu esaldiak koadernoan, haurra harreman-funtzioa nola ari den egiten azaltzeko.



1. Begiek...



2. Garunak...



3. Erantzuna...

6 LAN KOOPERATIBOA. Jarri binaka eta pentsatu egoera bat, aurreko jarduerako egoeraren antzekoa.



Banatu lana bakoitzak ongien egiten duena egin dezan: egoera pentsatu, marraztu, koloreztatu eta esaldiak idatzi.

7 Erreparatu argazkiei eta azaldu zer ageri den bakoitzean, unitatean ikasitakoa kontuan hartuta.



8 BALIOETAN HEZTEA. Gizonak eta emakumeak fisikoki desberdinak dira.



Zure ustez, arrazoia al da hori tratu desberdina izateko? Antolatu eztabaida ikasgelan, gai horri buruz hitz egiteko.

9 PENTSATZEKO. Garrantzitsua da gure elikadura askotarikoa izatea.



Azaldu zergatik.

Askotariko adimenak

★ Aukeratu eta egin jarduera hauetako bat:

- A.** Bilatu unitatean aztertu diren aparatu edo sistemetako bati buruzko informazioa. Egin marrazki bat; organo guztiak marraztu behar dituzu, eta haien izena eta eginkizuna adierazi.
- B.** Haurrek gurasoen eta neba-arreben antza dute. Idatzi esaldi horrekin lotutako kontakizun bat.
- C.** Egin NAOS piramide bat. Erabili zuk egindako marrazkiak edo argazkiak, edo collage izeneko teknika.

